

Idazkariak,

**LEGAZPIKO ONTZI ARINAK SAILKATZEKO INSTALAZIOAN BALBULA
BIKOITZEKO BEREIZGAILU OPTIKOA ETA INDUKZIOZKO BEREIZGAILUA
HORNITZEKO, MUNTATZEKO ETA INSTALATZEKO OINARRIZKO BALDINTZAK**

1. HELBURUA ETA AURREKARIAK

Kontratuaren helburua da balbula bikoitzeko bereizgailu optiko bat eta indukziozko bereizgailu bat instalatzeko beharrezko ekipamenduak hornitzea, muntatzea, instalatzea eta martxan jartzea. Ekipamendu horiek GHKren titulartasunaren barruan dagoen Legazpiko (Gipuzkoako) ontzi arinak (OA) sailkatzeko instalazioan sartuko dira, dokumentu honetan jasotzen diren baldintza teknikoen arabera.

Legazpiko gaika sailkatzeko instalazioak sailkatzen ditu GHKren zerbitzupeko udalerrietako eta mankomunitateetako ontziak. Instalazio honen produktibitatea eta eraginkortasuna hobetu nahi da indukziozko bereizgailu batekin eta PET eta HDPE (dentsitate handiko polietileno) ontziak sailkatzeko bereizgailu optiko gehigarri batekin.

2. DESKRIBAPENA

Agiri honetan proposatzen dena da egun Legazpiko ontzi arinen gaikako instalazioan burutzen den materialen berreskurapen automatikoa hobetzea, eta horretarako, indukziozko bereizgailu bat eta bereizgailu optiko bat instalatzea proposatzen da.

Indukziozko bereizgailu berria egungo errefusaren zinta-optikoen ondoren instalatzea proposatu da, eta ondorioz, fluxu horretan dagoen aluminioa berreskuratu ahal izango da. Sailkatutako aluminiozko ontziak edukiontzi batean pilatuko lirateke. Ekintza hori gauzatzeko, egungo errefusaren zinta-optikoa egokitu beharko litzateke.

Indukziozko bereizgailu berriak sailkatzen ez duen materiala zinta batek garraiatuko du, zein 600 mm-ko gutxieneko zabalerarekin egokitu beharko den, instalatu beharreko balbula bikoitzeko bereizgailu optikoa elikatzeke, eta ondorioz, fluxu horretako PET eta HDPE automatikoki berreskuratzeke. Bereizgailu optikoak sailkatzen duen materiala bideratu egingo da dagokion ontzietan eror dadin, deskargarako kalapatxen bidez. Eta sailkatu gabeko materiala deskargatuko litzateke egungo linea bukaerako bereizteko zintaren gainean. Zinta horrekin, postu biren bidez, plastiko nahasia ez den materiala



eskuz bereizten jarraitu ahal izan beharko da, eta zintaren deskarga plastiko nahasiaren ontzian egiten jarraituko da.

- I. Eranskinean jarri dira egungo instalazioaren planoak.
- II. Eranskinean jarri dira deskribatutako ezarpena egiteko proposamenaren planoak.

3. EZAUGARRI TEKNIKOAK

Hornikuntza honen xede diren ekipamenduek honako espezifikazio teknikoak bete beharko dituzte:

ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK	
Item	BEREIZGAILU OPTIKOA
Kodea	SO-101.
Marka	Hornitzaileak zehaztu beharrekoa
Modeloa	Hornitzaileak zehaztu beharrekoa
Unitate kopurua	1
Kokapena	Legazpiko ontzi arinak gaika sailkatzeko instalazioa
Kokapena prozesuaren linean	Ekipamendua errefusaren gurpildun korrontean kokatuko da. Ikusi honekin batera jarri diren planoak.
	Pabilioi barruko instalazioa.
	Zikinkeria eta hautsa duen laneko ingurunea.
Bereizgailu mota	Balbula bikoitzeko eta kanal bakarreko ekipamendua NIR teknologiarekin.
Materiala	PET eta HDPE sailkatzen ditu. Errefusa osatzen du plastiko nahasiak.
Akaberak	Hornitu beharreko ekipamenduak eta egitura osagarriek GHK-k zehaztutako akaberak izan beharko dituzte.
Gutxieneko gaitasuna (t/h)	1 t/h.
Bermatutako eraginkortasuna	Gutxienez, sailkatutako materialaren % 90, makinan sartzen den sailkatu beharreko materialari dagokionez.

Bermatutako purutasuna	Gutxienez, PET eta HDPEren inguruan Ecoembesek zehaztutako Berreskuratutako Materialen Espezifikazio Teknikoak (BMET).
Aire konprimatuaren presioa	8 eta 10 bar artean.
Azelerazio-zinta	
Abiadura aldagarri eta erregulagarria (m/s)	2,5 eta 3 arteko m/s.
Banda-zabalera baliagarria	Hornitzaileak zehaztu beharrekoa
Luzera (mm)	Gutxienez 7500 mm.
Inklinazioa	0°
Banda-mota	Koipearen kontrakoa
Dimentsio maximo onargarriak (mm)	Hornitzaileak zehaztu beharrekoa.
Ekipamenduaren gehieneko pisua (t)	Hornitzaileak zehaztu beharrekoa.
Aire konprimatuaren sistema kotatu gabe instalatutako potentzia minimoa (KW)	Hornitzaileak zehaztu beharrekoa.
Elikadura-tentsioa	Hornitzaileak zehaztu beharrekoa.
Kontrol-seinaleak	Hornitzaileak zehaztu beharrekoa.
Aire konprimatuaren emari-beharra	Hornitzaileak zehaztu beharrekoa.

ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK

Item	FOUCAULT BEREIZGAILUA
Marka	Hornitzaileak zehaztu beharrekoa
Modeloa	Hornitzaileak zehaztu beharrekoa
Kodea	SI-101
Unitate kopurua	1
Kokapena	Legazpiko ontzi arinak gaika sailkatzeko instalazioa
DESKRIBAPENA ETA FUNTZIONALITASUNA PROZESUAN ZEHAR	
Deskribapena	FOUCAULT BEREIZGAILUA

Instalazio-tokia	Hornitzaileak zehaztu beharrekoa.
	Pabilioi barruko instalazioa.
	Zikinkeria eta hautsa duen laneko ingurunea.
EKIPAMENDUAREN DESKRIBAPENA	
Materiala	Gaikako bilketaren bidez jasotako ontzi arinak
Gutxieneko gaitasuna (tn/h)	1 t/h.
Bermatutako eraginkortasun minimoa	Gutxienez % 90
Purutasuna	Gutxienez aluminioaren BMETak betetzea.
Foucaulten korrontearen bereizgailuaren oinarrizko ezaugarriak	
Mota	Foucaulten korronteak
Gutxieneko banda-zabalera erabilgarria (mm)	800 mm
Zintaren eragintza-sistema	Motorreduktore elektrikoa
Tentsioa	400 V / trifasikoa / 50 Hz
Isolamendurako babesa	IP - 55 / F klasea
Mota	Foucaulten korronteak

Gutxieneko ezaugarri tekniko hauek ez betetzeak aurkeztutako eskaintza baztertea eragingo du.

4. ENTREGATZEKO EPEA

Behin-behinean hartzeko (entregatzeko, instalatzeko eta egiaztatuta martxan jartzeko) gehieneko epea 14 astekoa da, kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Hornikuntza instalatzeko eta martxan jartzeko epea kontratuan xehatuko da.

Instalazioak, gutxi gorabehera, 1,5eko txandetan lan egiten du egunero, astelehenetik larunbatera arte. Ahal den neurrian, txanden arteko denbora erabili ahal izango da ezarpen-lanetarako, eta denbora hori balioetsiko da, beti ere geldialdi-denborak murrizteko balio badu.

Egin nahi den geldialdi tekniko bakoitza ezin izango da 2 egun (jaiegunak barne) baino gehiagokoa izan, eta geldialdi teknikoaren artean igarotzen den denbora gutxienez 4 egunekoa izango da. Hala ere, GHK-k zehaztuko du, tratatu beharreko sarreraren arabera, epe hori murriztu ahal baldin bada edo handitu egin behar baldin bada.

5. ADJUDIKAZIOAREN GEHIENeko PREZIOA

Kontratu honen adjudikazioaren gehieneko prezioa 199.999 eurokoa da, BEZ kanpo.

Kontratu honen prezioak ez dira berrikusiko.

6. ESKAINTZAREN AURKEZPENA

Lizitatzaille bakoitzak memoria tekniko bat jaso beharko du bere eskaintzan, non berariaz egiaztatuko den idatziz eta grafikoki agiri honetako 3. atalean deskribatutako ezaugarri tekniko guztietako bakoitza. Memoria horretan honako dokumentu hauek erantsi beharko dira:

1. Instalatu beharreko ekipamenduen espezifikazio teknikoa, zeinak, gutxienez, agiri honen 3. atalean adierazitako informazioa jasoko duen.

a. Deskribapena eta ezaugarri teknikoak.

Ez da kontuan izango eskaintzan argi eta garbi bereizita eta xehatuta ez dagoen ezaugarririk, xehetasun teknikorik edo hobekuntzarik. Alegia, ez da kontuan izango katalogoetan, publizitate-liburuxketan, eta abarretan jasotako informaziorik.

Hornikuntzaren barruan sartu beharko dira ekipamendua egungo sailkapen-linean integratzeko behar diren egokitzapen edota ekipo osagarri guztiak: dagoeneko existitzen diren ekipoak desmuntatzea, irteera/sarrera-zinta egokitzea/sartzea, instalazio elektrikoa egokitzea/handitzea, instalazioaren automatismoa ekipamenduaren funtzionamendura egokitzea, baita hornikuntza muntatzeko zein egungo ekipoa desmuntatzeko behar diren baliabide osagarriak ere.

Nabarmentzen da egungo bereizgailu optikoen aire-konpresorea kokatzen dela indukziozko bereizgailuarentzat proposatutako kokapenaren ondoan. Lizitatzailleek ekipamendu hori izan behar dute kontuan, bereizgailu optiko berriaren puzteko balbulak ondo elikatze beharrezko distantziak eta presioa baloratzeko, edo ekipamendu konpresore berria behar denean.

Eskaintzak bere kostuetan eta espezifikazioetan jaso behar du instalatu beharreko ekipamenduen konexio elektrikoa, eta beharrezkoa izanez gero, jaso beharko du,

baita ere, instalazioaren koadro orokorrean egokitzapen gehigarriak egin edo potentzia elektrikoa handitu behar baldin bada, baita instalazio-potentzia handitu behar baldin bada ere.

Eskaintza egin aurretik, instalazioak halabeharrez bisitatu beharko dira. Bisita horretan, eskaintza egiten duenak beharrezko datu guztiak jaso beharko ditu, eskaintzak instalazioaren berezitasunak eduki ditzan. Horretarako, lizitatzailleak GHKrekin jarri beharko dira harremanetan, kontratazio honen agiri erregulatzaillea argitaratu ondoren, 943.50.49.50 telefonoan, bisita hori egiteko eguna eta ordua zehaztu ahal izateko.

Instalaturako ekipamendu guztiek **CE markaketa izan beharko dute**, eta instalazioaren egungo kontrol-sistemarekin konektatu behar ahal izango dute.

b. Bermea:

Eskulanaren eta materialen bermeak eman beharko dira, urteetan eta orduetan adierazita.

c. Eskuliburuak:

Entregatu beharreko dokumentazioak honako eskuliburuak ere jasoko ditu:

- Ekipamenduaren deskribapen orokorra, ekipamendu horren osagaien zerrenda eta deskribapena eta beste datu interesgarri batzuk.
- Ekipamenduaren funtzionamendu eta mantentze-lanen eskuliburuak gaztelaniaz (paperean eta digitalean). Dokumentu horiek honako hauek jasoko dituzte gutxienez: erabilpen seguruaren eskuliburua; plano hidraulikoak, elektrikoak eta zatitzeak; funtzionamenduaren inguruko informazio orokorra eta eskaintako ekipamenduen mantentze-lanen maila ezberdinak.
- Jarraibide-liburuak gaztelaniaz (erabiltzailearen eskuliburua, gida laburtua, etab.).

2. Instalazioa bisitatu denaren jakinarazpena.

3. Proposatutako oinarritzko konponbidearen plano xehatuak (PDF eta DWG formatuetan).

4. Aukera gehigarriaren xehetasun-planoak, horrelakorik izanez gero (PDF eta DWG formatuetan).

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 API. 3 0


..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 API. 3 0
ABR.




GHK
Gipuzkoako
Hondakinen
Kudeaketa



Idazkaria

I. ERANSKINA – EGUNGO EGOERAREN PLANOAK



ADMINISTRAZIO KONTSEILIAK

2015 API. 30

(elan onartua)

Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 APR. 30



[Handwritten signature]

CÓDIGOS EQUIPOS	
TB	Transportador por Banda
AB	Abridor de Botellas
SB	Separador Ballístico
SF	Separador de Fibras
SO	Separador Óptico
PR	Presión de Subproductos

CESPA

PROYECTO: PLANTA DE RECUPERACIÓN DE ENVASES EN LEGAZPI (GUIPÚZCOA)

CLIENTE: AUTOMATIZACIÓN LÍNEA DE PROCESO IMPLANTACIÓN GENERAL EQUIPOS PLANTA

ESQUEMA: ENE-15


ESCALA: 1:150 (A3)

PROYECTO: ENE-15


ESCALA: 1:150 (A3)

ESQUEMA: ENE-15


PROYECTO	ESCALA	ESQUEMA
PLANTA DE RECUPERACIÓN DE ENVASES EN LEGAZPI (GUIPÚZCOA)	1:150 (A3)	ENE-15




SECCION E-E




SECCION F-F



SECCION G-G



SECCION H-H



SECCION I-I


ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 API 3.0

Aprobado por: Consejo de Administración.

Hernani,

2015 ABR 30



CÓDIGOS EQUIPOS	
TB	Transportador por Banda
AB	Abridor de Bolsas
SB	Separador Balístico
SF	Separador de Fibras
SO	Separador Óptico
PR	Presas de Subproductos

	PLANTA DE RECUPERACIÓN DE ENVASES EN LEGAZPI (GUIPUZCOA)
	AUTOMATIZACIÓN LÍNEA DE PROCESO IMPLANTACIÓN GENERAL EQUIPOS SECCIONES TRANSVERSALES
	ESA-0907-003 ENE-15
	1:150 (A3) ENE-15

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 API. 3 0

..... (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,


2015 API. 3 0
ABR. 3 0



Idazkaria,



II. ERANSKINA – EZARPEN-PROPOSAMENAREN PLANOAK



Planta de selección de envases de Legazpi
 Separador de Foucault y Separador óptico

Escala: 1/50 para DIN-A3	Unit: mm	File name:
Date:	Project: FLO	Sheet: 1
Drawn:	Project:	Rev:
Approved:		


- TB-031
- SF-002
- PR-004
- TB-015
- TB-014 (x4)
- SO-101
- H=2500
- H=2900
- PR-005
- TB-039
- TB-041
- H=800
- H=2900
- H=1600
- H=3800
- SO-024
- TB-036
- TB-035
- SO-023
- TB-040
- SI-101
- TB-037
- TB-038
- TB-033
- TB-032

ADITB-037 AZHIO HONTSSENIAK
 2015 API. 30
 Aprobado por: Consejo de Administración (S.H. DEIATUA)
 (S.H. DEIATUA)
 2015 APR. 30

Hernani, 2015 APR. 30



PLANO I



CT-101 TB-038

Planta de selección de envases de Legazpi
Separador de Foucault y Separador óptico

Escala: 1/50 para DIN-A3	File name:
Date:	Unit: mm
Issue:	Project: FLO
Approved:	Sheet: PLANO II
	Rev:

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK


2015 API. 30

..... (e)an enartua
Aprobado por Consejo de Administración

Hernani, 2015 ABR. 30



Idazkaritza



Escala: 1/50 para DIN-A3		Inte:	File name:
Date:		mm	
Issue:		Project:	Book:
Approved:		FO	PLANO III
			Rev:

Planta de selección de envases de Legazpi
Separador de Foucault y Separador óptico


ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 API. 30

..... (e)lan onartua
Aprobado por Consejo de Administración.

Herrnani

2015 ABR. 30



Escala: 1/50 para DIN-A3		Unit: mm	File name:
Date:	Project: F10	Sheet: F10	Rev:
Issue:	Approved:	PLANO IV	

Planta de selección de envases de Legazpi
Separador de Foucault y Separador óptico

